

AKTA



Bilera eguna: 2011-11-02

Bilera tokia: Kultur etxea

Bertaratuak: Leire Zinkunegi, Elixabet Zuriarrain, Hector Gonzalez, Imanol Manterola, Joseba Oliden, Iñigo Gaiton, Gotzon Igoa, Garbiñe Manterola, Eneritz Odriozola, Olatz Olariaga eta Oihana Gurrutxaga

Hasiera ordua: 19:00

Bukaera ordua: 21:15

Gai ordena

1. Topagune berdearen helburuak definitu. Orion ingurumenarekiko harremana orain arte izan dena eta etorkizunean behar lukeena hausnartu. Landu daitezkeen alorrak identifikatu.
 2. Ekintza konkretuak landu. Edalontzien dokumentua; Natur ondarearen akordioa; etxekolanak
 3. Bestelakoak
-

Bileraren garapena

1. TBaren helburuak.

Bertaratu garen kide guztien aurkezpen labur baten ondoren, Garbiñek egin du lehendabiziko bileran ateratako ideien laburpena Topagune Berdeak bere ustez izan beharko lituzkeen helburuez aritu da; helburu orokorrak eta helburu zehatzak.

Udalek gaur arte ingurumenaren gaia ez dutela inoiz landu eta Topagune Berdearen helburua arlo honetan herriak dituen helburuak definitu eta lantzea izan beharko lukeela dio.

Elik aurreko bileran adierazitakoa azaldu du hau da helburu orokorrak eta helburu zehatzak biak landu beharko genituzkela. Imanolek TBaren helburu orokorrak lantzeko dinamika proposatu du, adibide modura. Hiru eremutan banako luke adibidez lanketa hau: herriaren eremu fisikoa (natur balioak, lurrak, degradatutako eremuak), herritarrak (hondakiñak, mugikortasuna) eta udala (eskumenak dituen gaitan: bidegorria, energia, hiriko planeamentua)

Bukaeran, Orion aurretik egindako Agenda 21eko diagnosis eta ekintza plana oinarritzat hartu ditzakegula esan da, helburu orokorrak definitzen joateko.

Topagune Berdeen bilerak bi zatitan banatuko ditugula ere adostu dugu; 45 minutu helburu orokorrak lantzeko eta 45 minutu helburu zehatzetarako.

2. Ekintza konkretuak

2.1. Motondo. Garbiñe. Herrio natur taldea

Garbiñek egin du azalpena. Motondo eremuaren berreskurapen proiektuaren egoera gaur egun zertan den azaldu du. Aurretik, laburtuta azaldu du nola izan den prozesua LIC eremu izendatu zutenetik gaurdaino.

2.2. Hondakiñak. Joseba.Orio Zero Zabor taldea.

Helburua: hondakinen murrizketa. Ekintza puntualak egin nahi dituzte kontzientziazioa bultzatzetik murrizketaren filosofia praktikara eramateraino. kudeaketa sistemetan oraingoz sartu gabe. Proposatu dituzten ekintzak;

- Elkarte gastronomikoetan zaborren bereizketa bultzatu.
- Esne makina jarri herrian.
- Ikastetxeetan, ikasle eta gurasoekin, ogitartekoak biltzeko berrerabilgarria izan daiteken formatua landu eta kanpaina bat egin..
- Arraindegi eta harategietan edukiontzia erabiltzeko kanpaina.
- 5. Edukiontzia erabiltzeko giltza eskuratzeko erraztasunak jarri
- Arkupe eta komertzio eta hostalariekin bildu murrizketaren gaia lantzeko. Horretarako Topagune Berdeari laguntza eskatu diote, tartean udal taldetako partaide direnei bilkura hauetan egon daitezten. Hurrengo bilerarako Arkupekin landu nahi dena idatziz zehazteko eskatu du Olatzek eta hala egingo dutela adierazi du Josebak.

2.3. Bioaniztasunaren dokumentua (Natur ondarearen Akordioa). Olatz. Herrio natur taldea

- Dokumentuaren laburpena egin da.
- TBak ondorioztatu du dokumentu hau udalak onartzeak konpromezu handia dakarrela eta gerta daitekela paperean onartzea eta praktikan berau gauzatzeko zailtasunak izatea.
- TBak dokumentua onartu du aho batez. Udal taldeek onartzea da hurrengo pausua, udalbatzan behin behineko onarpena eman diezaioten.

3. Bestelakoak eta etxekolanak.

- Surf Taldekoek hurrengo bilerarako hondartzaren egoeraren azalpena egingo dutela esan dute.
- Ehizarako postuak: Orioko hainbat ehiza toki oso zikinak ikusi dira, ehiztari elkarteak omen dira garbiketaren arduradun eta haiei eskatu beharko zaizkiela kontuak komentatu da. Postu batzuk

gainera herritar asko ibiltzen den lekuetatik gertu daude (Itxaspe, Zaragueta eskola, Abaromendi auzoa).

- Ehizarekin bezala arrantzaleen egoera aztertu beharko litzake, ibai ertzean egunero bai daude arrantzale ugari ingurua zaintzeko asmorik ez dutenak eta ohitura txarrak dituztenak.

TBaren 3. bilerarako etxekolanak

Zer	Nork
Agenda 21aren diagnosis eta ekintza plana	TB
Arkuperekin biltzeko proposamena	Orioko Zero Zabor taldeak
Hondartza	OST
Edalontzien dokumentua aztertu	Denek
Orioko dituen ingurumen azterketak bildu	Beñat
Herri lurren inbentarioa lortu	Beñat
Planeamenduaren laburpena	Beñat

Besterik gabe bilera bukatu dugu hurrengo bilerarako deialdia egin da, abenduaren 1erako (19tan k.etxen)